

## 4. eredua

### ESKOLA JAZARPENeko KASUETARAKO PROTOKOLOAREN EREDUA

Eskola jazarpeneko kasu bat gertatzen denean ikastetxean egin beharreko jarduerak arautzen dituzte 47/2010 Foru Dekretuak (duela gutxi 57/2014 Foru Dekretuak aldatu duenak) eta 204/2010 Foru Aginduak.

Ikastetxe bakoitzeko bizikidetzaren planean kasu horietan erabili beharreko protokolo zehatza sartuko da, baita hura ezartzeko ardura nork hartuko duen ere. Protokolo eredu hau prestatu da ikastetxe bakoitzak zuzenean bereganatu edo egoki dezan, hezkuntza erkidegoaren ezaugarrien eta beharren arabera.

Ikastetxeak ondoko printzipio hauek bermatu beharko ditu nonahi eta beti:

- **Babesa.** Lehen helburua eraso geldiarazi eta berriro ez sortzea da.
- **Esku-hartze eraginkor, azkar eta presaka ez hartua.** Hautemandako indarkeriazko gertaeren aurrean beti esku hartu behar da, eraginkortasunez eta azkar, eta inoiz ere ez presaka. Hezkuntzak emaniko erantzunean bi hezkuntza-neurri motak sartuko dira: konpontzaileak eta, hala behar denean, diziplinakoak.
- **Diskrezioa eta isilpekotasuna.** Horrek esan nahi du inplikaturiko profesionalek soilik ezagutuko dituztela gertaerak, gorabeherak eta jarduerak.
- **Inplikaturako ikasle guztiekin esku-hartzea.** Hezkuntzako esku-hartzea inplikaturako ikasle guztiei hedatuko zaie: biktimak, jazarpenaren protagonistak eta lekukoak.
- **Zuhurtasuna eta sentikortasuna** esku-hartzeetan. Kontuan hartu behar da arazo honek sufrimendu handia eragiten duela familia guztiengan eta biktimengan.

## ESKOLA JAZARPENEO KASUEI EKITEKO JARDUEREN ESHEMA

ZER GERTATZEN DA?/ZER EGIN?	NOIZ?	ARDURADUNA
Jakin dugu.	1. eguna	Nornahi
Gertatutakoaren berri emanen diogu tutoreari edo zuzendaritza taldeko kide bati (1. eranskina).	1. eguna	Nornahi
Kasua ikertu eta lantzeko agindua. Izendatu arduraduna. Babes neurriak.	1. eguna	Zuzendaritza
<b>Behaketa sistematikoa</b> inplikaturiko protagonistak nor izan daitezkeen zehaztu: biktima, erasotzailea(k) eta lekuko(k)	1. eguna	Zuzendaria, ikasketaburua, orientatzailea
* Datuen babeserako eta Interneten informazioaren pribatasunerako arauen aplikazioa egiaztatu. Ikasle eta gurasoen <b>baimen informatuak lortu</b> , hala behar denean, gailuetan eta informazio pertsonal esanguratsuan sartu ahal izateko.	1. eguna	Zuzendaria edo ikasketaburua
Gaia serioa eta egiaztatua den aztertu. Kautelazko neurriak. Gaia ez bada larria eta biktimarekin eta erasotzailearekin hitz eginez konpontzeko aukera "argia" ikusten bada, hobe da hala egitea gatazka larriagotu ez dadin.	1. eguna	Zuzendaritza edo arduraduna
Bermatu eta antolatuta biktimaren babesa.	1. eguna	Irakasleak eta beste batzuk
Hitz egin balizko biktimarekin. Beharbada eskola ez den toki batean eta eskolako ordutegitik kanpo? Beharbada telefonoz? Bermatu beti diskrezioa. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aditzera eman lagundu nahi dugula. Esan gure laguntza izanen duela.</li> <li>- Konta dezala zer gertatzen zaion.</li> <li>- Esan gaia landu nahi dugula eta hori egiteko berak ados egon behar duela.</li> <li>- Ikasgelan lantzea erabakiz gero, galdetu zer nahiko lukeen: ikasgelan egon edo ez?</li> <li>- Jakin dezala berarekin gaudela, behar duenerako.</li> </ul> Gainerako protagonistekin egin beharreko <b>elkarrizketak erabaki eta egin</b> .	1./2. eguna	Arduraduna <b>(6. eranskina)</b>
<b>Ikastetxeak bidezkotzat badu, ikaslearen baimenak lortu</b> haren sare sozialetan eta komunikazio tresnetan sartzeko (*).	2. eguna	Arduraduna
Baloratu biktimaren zein erasotzaileen familiekin hitz egiteko unea denetz. Komeni da orain egitea edo itxaron behar da? (4. eranskina)	2. eguna	Arduraduna zuzendaritzakoekin...
<b>Ikastetxeak bidezkotzat badu, gurasoek eman beharreko baimenak lortu</b> ikaslearen sare sozialetan eta komunikazio tresnetan sartzeko (*).	3. eguna	Arduraduna
Esku artean dugun informazioa aztertu. Argitu ahalik eta lasterren gertatutakoaren larritasuna eta kasua hauetakoren bat den: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jazarpena.</li> <li>- Ziberjazarpena, sexting-a, grooming-a (<b>genero indarkeria</b> hautematen bada, jarraitu berriarazko protokoloa, <b>5. eredu**</b>).</li> <li>- Uneko eraso.</li> <li>- Gatazka.</li> </ul> Honako hau egiteko, arduradunak denbora hartuko du eta haren klaseak zaintzako irakasleek emanen dituzte. Beharrezkoa da taldeko kide guztiekin edo batzuekin elkarrizketatea? (prestatu 2. eranskineko txostena) <b>*Eskuratutako informazio dokumentala gorde eta babestu.</b>	2. eguna	Arduraduna
Parte eman Ikuskapen Zerbitzuan eta, behar denean, harremanetan jarri Bizikidetzarako Aholkularitzarekin. *1.- <b>Aholkularitza eskatu</b> Poliziaren Ikerketa Teknologikoko Unitateei edo Fiskaltzari, kasuan kasu jokatzeko moduari buruz. *2.- Jasotako aholkularitzaren arabera, parte eman Adingabeen Fiskaltzari edo segurtasun indarrei, hala badagokio.	2. edo 3. eguna	Zuzendaritza
Aztertu datuak eta erabaki gaia nola bideratu. <b>Esku-hartze plana</b> ezarri (zehaztu neurriak 3. eranskinaren bidez)	3. eguna	Arduraduna eta orientatzailea
Hutsegitearen kalifikazioa eta, hala behar denean, hezkuntza arloko neurriak.	3. eguna	Zuzendaritza
Taldearekin egin beharreko tutoretza lana: ezinbestekoa da kaltea konpontzea, bai erasotzaileena, bai taldearena. Biktimarekin alde aurretik erabaki da ikasgelan egonen den edo ez. (Erabaki, tutoreaz gainera, beste norbaitek parte hartu behar duen).	3. edo 4. eguna eta hurrengoak	Tutorea
Lana biktimarekin. Saioa edo saioak. Biktimak erabaki badu tutoretza klasean ez egotea, une hori aprobetxatu.	Lehen unetik aurrera	Tutorea - Orientatzailea? - Beste espezialista batzuk?
Lana jazartzaileekin. Banaka eta/edo taldean.	4. egunetik aurrera	Tutorea - Orientatzailea? - Beste espezialista batzuk?

Informazioa familiei. Idatzia eta/edo ahozkoa (4. eranskina).	5. eguna	Arduraduna eta zuzendaritza
Amaierako txostena Ikuskapenera igorri.	Prozesuaren amaiera	Zuzendaritza
Berrikuspenak.	Zehaztuko dira	Arduraduna

\* Jarduera hauek burutu ziberjazarpeneko (cyberbullying) edo sexting-eko kasuetan bidezkoa denean.

\*\* Taula honetan azaltzen diren jarduerak behar bezala burutzeko, Bizikidetzarako Aholkularitzaren webgunean dauden material osagarriak begiratzea komeni da: [Laguntza aqiriak - Hezkuntza](#)

## 1. ERANSKINA

### **IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI JAZARPENEOKO EDO INDARKERIAZKO KASUAK GERTATZEN DIRENEAN IDATZIZ ADIERAZI BEHARREKOA. ESKU-HARTZE ESKAERA**

*Beren Bizikidetzeta Plana aplikatuz, ikastetxeek dokumentu idatzi hau edo beste dokumentu idatzi batzuk erabil dezakete/ditzakete. Dokumentu horietan adierazi nahi diren gertaerak zehaztuko dira, antzemandako egintzak ikastetxeko zuzendaritzari aditzera emateko.*

### **IKASTETXEKO/BHI-KO ZUZENDARI JN./AND.**

..... Foru Aginduak arautzen du nola jardun behar den ikaskideen arteko jazarpen eta beldurrarazte kasuetan esku hartzeko eskaera baten aurrean. Esku hartzeko eskatzen dizut, aipatutako foru aginduko 15.2 artikuluari jarraikiz.

#### **Eskaeraren arrazoa:**

#### **Gertatutakoaren deskribapen laburra:**

Eskatzen dizut ikastetxeak egindakoaren eta arazoaren aurrerabidearen berri eman diezadazun.

- BAI
- EZ

Sinadura eta data:

## 2. ERANSKINA

### EGINTZAK EGIAZTATZEKO TXOSTENAREN EREDUA

*Lehen txostena. Zuzendaritzak edo hark bere ordeztatzeko izendatutakoak egin eta zuzendaritzak sinatua. Hezkuntzako Ikuskapenera kopia bidaliko da.*

\_\_\_\_\_ Foru Aginduan araututakoari jarraikiz, kasuko egoeraren eta egiaztatutako egintzen gaineko txosten hau prestatu da:

1.- Identifikazioa:

Ikastetxea:

Helbidea eta telefonoa:

2.- Txosten hau idatzi du(t)en pertsona(k):

3.- Inplikaturako ikasleak:

Ikasleak	Ikasmaila eta atala	Zer den: erasotzailea/biktima/lekukoa

4.- Zer egunetan jakinarazi zitzaion zuzendaritzari:

5.- Nork eskatu zuen esku-hartzea:

Pertsona hori da:

Aita edo ama. Ikaslea. Tutorea. Irakaslea. Orientatzailea. Beste batzuk

6.- Kasua behatzeko eta ikerketzeko hartutako neurriak:

7.- Egiatzatutako eraso motak:

Eraso motak	bai	ez	Batzuetan	Askotan	Ikasle erasotzaileak
<b>Ahozkoa</b> Irainak, ezizenak, biktimari buruz gaizki esaka ibiltzea...					
<b>Gizartetik baztertzea</b> Parte hartzen ez uztea. Ez ikusiarena egitea. Alde batera uztea. Zokoratzea.					
<b>Fisikoa</b> Kolpeak, bultzadak...					
<b>Fisikoa (zeharkakoa)</b> Ikaslearen jabetzapeko gauzak kaltetzea, haren gauzak desagerraraztea...					
<b>Beldurraraztea</b> Xantaia, mehatxuak					
<b>Sexu-jazarpen edo -abusua</b>					
<b>Ziberjazarpena</b> Telefonoan edo informatika bidez jazartzea					

8.- Non gertatu den:

Ikasgelan. Irakaslea bertan zegoela	
Ikasgelan. Irakaslerik ez zegoela	
Korridoreetan	
Klase aldaketetan	
Komunetan	
Aldageletan	
Sarrera-irteeretan	
Jantokian	
Autobusean	
Ikastetxetik kanpo	
Telefonoan	
Interneten (zehaztu esparrua):	
- Erakundearen hezkuntzako aplikazioak:	
- Kanpoko aplikazioak:	
- Beste batzuk:	
Beste batzuetan.....	

9.- Egiaztatutako gertaeren deskribapen kualitatiboa (gertaera, datak, tokiak, erasotzaileak, lekukoak...)

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (e)an

Stua. Txostenaren prestatzailea

Stua. Zuzendaritza

### **3. ERANSKINA**

#### **ZUZENDARITZARI EMAN BEHARREKO NEURRIEN PROPOSAMENA, JAZARPEN KASU BATEN AURREAN**

Jazarpena gertatzen denerako ezarrita dagoen jarduera protokoloari jarraikiz, arduradunak ekintza plana zehazteko bildu dira. Kasuaren txostena honi erantsi zaio (2. eranskina).

- 1.- Bileraren deia egin duena.
- 2.- Biktima babesteko berehalako neurriak.
- 3.- Biktima indartzeko neurriak.
  - 3.1. Beste batzuk gomendatzen dira?
  - 3.2. Aplikatzeaz arduratuko direnak.
- 4.- Erasotzaileekin hartu beharreko neurriak.
  - 4.1. Hezkuntzakoak:
    - Diziplinakoak
    - Konpontzaileak eta berreskuratzaileak
  - 4.2. Aplikatzeaz arduratuko direnak.
  - 4.3. Ohiko prozedura ireki beharko litzateke?
- 5.- Taldeari ezarri beharreko neurriak:
  - 5.1. Hezkuntzakoak.
    - Diziplinakoak.
    - Konpontzaileak.
  - 5.2. Aplikatzeaz arduratuko dena.
- 6.- Neurri guztien jarraipena eta berrikuspena. Noiz, nola, nork?

Sinadura eta data:



#### 4. ERANSKINA

##### FAMILIARI KOMUNIKATZEKO ETA HAREKIN HITZORDUA EZARTZEKO NEURRIEN PROPOSAMENA

Honako honen bidez aditzera ematen dizuegu zuen semea edo alaba den \_\_\_\_\_ honako gertaera hauetan nahasita dagoela:

Eskatzen dizuegu ikastetxera etor zaitezten \_\_\_\_\_(r)ekin elkarrizketa izateko, \_\_\_\_\_[eguna]\_\_\_\_\_(e)an, \_\_\_\_\_[ordua]\_\_\_\_e(t)an. Uste dugu \_\_\_\_\_ irauen duela. Egun eta ordu horretan etortzerik ez baduzue, eskatzen dizuegu guri horren berri ematea \_\_\_\_\_ zenbakira deituz. Beste une bat aurkitzen ahaleginduko gara.

\_\_\_\_\_(e)n, \_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an

Stua. Zuzendaritza

✂-----

Itzuli sinatuta:

Komunikazioa egun honetan hartu dut: \_\_\_\_\_

Ikastetxera joanen naiz: Bai \_\_\_\_\_ Ez \_\_\_\_\_

## 5. ERANSKINA

### ESKU HARTZEKO ESKAERA, HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO BIZIKIDETZA AHOLKULARITZARI

**Eskatzailearen izen-deiturak:**

**NANa:**

**Telefono zk.:**

**Helbidea:**

**Zer den** (*azpimarratu*)

**Ikaslea**

**Aita**

**Ama**

**Beste norbait (zehaztu):**

**Ikaslearen izen-deiturak:**

**Adina:**

**Ikasmaila:**

**Ikastetxea:**

**Tutorearen izen-deiturak:**

**Eskaeraren zergatia** (*Beharrezkoa bada orrialdearen atzean idatzi*):

\_\_\_\_\_(e)n, \_\_ (e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an

**Sinadura:**

## 6. ERANSKINA

### GAILU ETA APLIKAZIO TEKNOLOGIKOEN bidez eragindako **ESKOLA JAZARPENeko** zein **GENERO INDARKERIAKO** kasuetan egin beharrekoari buruzko jarraibide osagarriak

**Berdinen arteko tratu txar** bezala ulertzen da, oro har, egoera bat non ikaslea biktima bihurtzen den etengabe eta behin eta berriz jasaten dituelako beste ikasle batek edo ikasle talde batek eragindako ekintza agresiboak, iraingarriak edo laidogarriak (ahozkoak, fisikoak edo psikologikoak eta emozionalak). Horri, aldaera gisa, **kanal teknologikoaren** erabilera gehitzen badiogu, jazarpen mota berri horretarako egokiak diren hezkuntza neurriak hartu beharko ditugu.

Kasu bat diagnostikatzeko garrantzitsua da eraso errepikatua izatea eta ez gertakari bakan bat. Bakanki mezu desatseginak igortzea, jokabide baztergarria izanik ere, ez litzateke hartu beharko, gogoeta eta analisi sakonagoa egin gabe, ziberjazarpen kasutzat. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi kasu horretan esku-hartze egokia behar ez denik.

Gailu eta aplikazio teknologikoak, gainera, **genero indarkeria** eragiteko bide ere izan daitezke. Horrelakoetan gomendagarriena da 5. ereduan azaltzen den protokoloari jarraitzea eta eranskin honetako (6. eranskina) aholkuei ere kasu egitea.

Hezkuntza erkidegoko edozein kidek arrazoizko zantzuak baditu uste izateko *teknologia berriak edo Internet baliatuz ikasle, irakasle edo familiei jazarpena eragiten ari zaiela*, kasuaren berri emanen dio ikastetxeko zuzendaritzari.

Komunikazio prozesuetan isilpekotasuna eta diskrezioa zainduz, hurrenkera honetan jardunen du ikastetxeak:

- 1) **1. fasea: Antzematea eta aurretiatzko informazioa lortzea**
- 2) **2. fasea: Kasua baloratzea, ikertzea eta ekintzak zehaztea**
- 3) **Ondorengo garapen jarduerak zehaztea.**

Proposatzen dugun protokolo eredu honetan laburbiltzen dira eskola jazarpenaren ondorioz gerta daitezkeen gatazkei erantzuteko ikastetxeak egin beharreko jarduerak. Funtsezko lana da eta, eraginkorra izan dadin, ikastetxeko Bizikidetza Planean sartu behar da.

Nolanahi ere, protokoloa aberastea gomendatzen da, balioetan hezteko estrategiak garatzeko beharrezko ikusten diren prebentzioko eta hezkuntzako jarduerak sartuz.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 132. artikulua eta 204/2010 Foru Aginduko 15. artikulua ezarritako eskumenak aintzat harturik, zuzendariak edo, bere kasuan, hark espresuki eskuordetutako zuzendaritza taldeko beste kide batek zuzenduko du protokolo hau irekitzearen eta garatzearen ondoriozko jarduera oro.

Ezinbestekoa da jazarpenaren frogak denbora guztian gordetzea, jazarpena agertu den era edozein izanik ere, garatu behar den prozesuan ezinbestekoak izanen direlako. Garrantzitsua da balizko egileen nortasuna ezagutzea edo ziurtatzea baina, betiere, inoren eskubideak kaltetu gabe.

Ezinbestekoa da inplikaturik dauden eta haien inguru hurbileko jendearen (ikaskideak, irakasleak, familiak eta hurbileko beste pertsona batzuk) laguntza lortzea. Ekintza ordenatua, behar bezala dokumentatua, sekuentziatua eta planifikatua izatea berme bat da antzemandako prozesuan denek elkarlana izateko.

Ezinbestekoa da jarduerak hurrenkera egokian antolatzea, inplikaturik garatutako prozesuari buruzko informazioa ematea eta, orobat, bildutako datuak eta informazioa diskrezioz tratatuko direla bermatzea.

## 1. fasea: Egoerari antzematea

1. Hezkuntza erkidegoko edozein kidek arrazoizko zantzuak baditu uste izateko *teknologia berriak edo Internet baliatuz ikasle, irakasle edo familiei jazarpena eragiten ari zaiela*, kasuaren berri emanen dio ikastetxeko zuzendaritza taldeari. Komunikazio prozesuetan isilpekotasuna eta diskrezioa zaintzea ezinbestekoa da.
2. Jasotako informazioa zuzendaritza taldeari jakinaraziko zaio beti.
3. Zuzendaritza taldeak ahalik eta lasterren aztertu beharko du jasotako informazioa, tutorearen eta ikastetxeko orientatzailearen laguntzarekin eta, hala behar denean, ikastetxeko ikuskariaren eta/edo Bizikidetzarako Aholkularitzaren laguntzarekin.
  - 3.1 Jakinarazitako egoerari buruz jasotako informazioa eta, bere kasuan, lortutako frogak aztertzea.
  - 3.2. Ustezko erasotzaile eta biktima gisa inplikaturakoak nor diren zehaztea. Aurrekariak eta toki komunetan, geletan, jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan eduki ahal izan dituzten harremanetako esperientziak baloratzea.
  - 3.3. Bere kasuan, ustez tratu txarrak pairatzen dituen pertsonarekin elkarrizketatzeko aukera baloratzea eta elkarrizketa plana nola egin aztertzea (beharraren eta egokitasunaren arabera, inplikaturako ikaslearen ikaskideekin, irakasleekin, familiekin...). Hori guztia erabateko diskrezioz eta isilpekotasunez egingen da eta, beharrezkoa dela ikusiz gero, eskatuko da ustezko biktimaren familiarekin eta/edo gainerako ikaskideekin elkarrizketak egitea.

## 2. fasea: Kasua baloratzea: ikertzea eta lehenengo erantzunak aurkitzea

1. Zuzendaritza taldeak planifikatu egingen du aztertutako egoera ikertzeko eta baloratzeko prozesua, aurretiazko informazioan jasotako datuen argitan, eta horren berri emanen die tutoreari, orientatzaileari, eta/edo bere kasuan ikastetxeko segurtasunaren arduradunari (DPO), eta bizikidetzat batzordeari. Balorazio horren eta dauden zantzu eta frogen arabera planifikatuko dira hartu beharreko neurriak. **Jokabidearen eta egoeraren tipifikazioa funtsezkoa da. (1. eguna eta 2. eguna).**

Ziberjazarpeneko balizko egoera bat baloratzeko eta tipifikatzeko, **ondoko alderdi hauek** hartuko dira aintzat:

- Aztertutako ekintzen eta ekintza horiek burutzeko erabili diren gailu teknologikoen ezaugarriak eta izaera.
  - Ekintzen izaera eta hedapena.
  - Ziberjazarpena eteteko erraztasuna/zailtasuna.
  - Biktima zenbat denbora izan den ziberjazarpena jasaten.
  - Biktimaren eta ustezko erasotzaileen adina eta ezaugarri psikologikoak.
  - Biktimarengan izandako eragina eta ondorioak.
2. Ziberjazarpeneko ebidentziak daudenean, eta dagokion informazioa biltzen eta aztertzen jarraitzea deusetan galarazi gabe, **berehala esku hartzeak** izanen du lehentasuna bigarren fase honetan, ezagutu den egoerak iraun ez dezan; hori guztia prozesuaren bukaeran planteatu daitezkeen erabakiak baino lehen egingen da. Antzemandako egoera errotik eta lehenbailehen gelditu behar da. **(1. eguna).**
  3. **Ikerketan** jarraian zehazten diren jarduerak sartuko dira:

### 3.1. **Informazioa bilatzeko ekintzak (1. eguna eta 2. eguna).**

3.1.1. Inplikatuak (biktima eta erasotzailea): antzemandako egoeraren informazioa eskatzea eta berriazko erreferentziak lortzea:

- Biktimarekin elkarrizketa. Biktimarekin egiten den elkarrizketak barne hartu behar ditu hari arreta egitea, eragindako efektu eta ondorioen balorazioa, ekintzen isilpekotasuna eta ustezko erasotzaileen balizko identifikazioa. Gainera, ezinbestekoa da biktimak azaltzen duena aintzat hartuko dela, diskrezioz tratatuko dela eta kasuaren balorazioaren arabera bidezko jotzen diren jarduerak egingen direla bermatzea.
- Balizko erasotzailearekin elkarrizketa. Barne hartu behar ditu hark gertatutakoaren gainean ematen duen balorazioa, eragindako ondorioekiko duen jarrera eta, berriaz, ondoko konpontze eta adiskidetzeko prozesuekiko jarrera.

### 3.1.2. **Beste elkarrizketa batzuk (2. eguna).**

- Egoera ezagut dezaketen ikaskideak.

Egoera ezagut dezaketen ikaskideekin egiten diren elkarrizketak erabiliko dira, betiere, informazioa biltzeko eta gatazka eteteko eta sortutako eragin kaltegarriak murrizteko ezinbesteko laguntza eskatzeko.

- Inplikaturiko ikasleen (biktima eta erasotzaileen) familiak.

Biktima den ikaslearen familiarekin egiten diren elkarrizketetan kontuz jokatu behar da, esku-hartze zuzentzailea beharko balitz harekiko jarrera irmoa izan dadin, ikerketa prozesuan diskrezioa zaintzeko eta araudia betetzeko. Horrez gain, aurrerago egin litezkeen jardueretarako laguntza eskatuko zaio familiari, adibidez, beharrezkoa balitz erasotzailearen familiarekin harremana izateko.

Erasotzailearen familiarekin egiten diren elkarrizketetan alderdi hauek zainduko dira bereziki: bildutako datuak ordenaturik ematea, zehaztu den balorazioko eta erabakiak hartzeko prozesurako laguntza eskatzea, eta planteaturiko egoeraren aurrean izan ditzaketen konfrontazio erantzunak era egokian tratatzea.

- Inplikaturiko ikasleen irakasleak.

Baliteke irakasleek kasua ebazten lagunduko duen informazioa izatea, beraz, ez da baztertu behar irakasle jakinekin berariazko elkarrizketak egiteko aukera.

3.2. **Txostena.** Bildutako informazioak ahalik eta esplizituen zehaztu beharko ditu alderdi hauek, gutxienez (ikus 2. eranskina):

- (1) Ezagutu den egoeraren izaera, intentsitatea, hedapena eta larritasuna.
- (2) Inplikaturiko irakasleak.
- (3) Egoeraren balorazioa.
- (4) Eragindako ondorioak.
- (5) Erabilitako gailu eta aplikazioen ezaugarriak.

### 3.3. Esku hartzen duten beste eragile batzuk (2. eguna edo 3. eguna).

Era honetako egoeren konplexutasuna dela-eta, kasuan esku hartu duten profesionalak erabaki dezakete beharrezkoa dela ikastetxetik kanpoko zerbitzuetara jotzea kontsultak egiteko eta aholku bila, inguruabarren, beharren eta egokitasunaren arabera. Besteak beste, **Hezkuntzako Ikuskapenera, Bizikidetzarako Aholkularitzara** edo, larritasunaren eta premiaren arabera, poliziaren ikerketa teknologikoko unitateetara edo adingabeen fiskaltzara jo daiteke, kasu bakoitzean nola jokatu jakiteko.

Ikastetxe bakoitzeko bizikidetzaren planak zehaztuko ditu bizikidetzaren batzordeak honelako kasuetan beteko dituen eginkizunak.

### 4.- Esku-hartze plana eta hartu beharreko neurriak (3. eguna).

Berdinen arteko **ziberjazarpena baieztatzen bada**, kautelazko neurriak hartu ahaliko dira (2/2010 Legeko 11. artikulua). Neurri horien berri eman behar zaie tutoreari, ikastetxeko bizikidetzaren batzordeari, orientatzaileari eta, dagokionean, kasua ebatzen lagun dezakeen profila duen beste profesional bati, eta Hezkuntzako Ikuskapenari, eta haiei guztiei eskatuko zaie garatuko den esku-hartze planaren oinarritzako irizpide eta baldintzen gainean hausnartzeko. Aipatutako artikulua ezartzen duenari jarraituz, ikasleen gurasoei edo legezko tutoreei hartutako kautelazko neurriak jakinaraziko zaizkie.

**Premiazko neurriak hartzea:** familiei informazioa emateaz gain, zuzendaritza taldeak neurriak hartuko ditu txarra jasotzen duen ikasleari arreta eta babesa emateko, tutorea, ikastetxeko orientatzailea eta, beharrezkoa balitz, kasua ebatzen lagun dezakeen profila duen beste profesional bat, eta Hezkuntzako Ikuskapena jakinaren gainean daudela eta haien aholkua jasoz. Baldintza pertsonaletan eta elkarrekintzakoetan, trebetasun sozialetan eta, behar denean, eskolako errendimenduan laguntzeko eta hobetzeko prozesuei begira ezarriko dira neurri horiek.

Fiskaltzari, Estatuko edo tokiko segurtasun indar eta kidegoei kasua jakinarazteko aukera baloratuko da. Hain zuzen ere, hauei jakinaraz dakieke:



## Adingabeen Fiskaltza

Helbidea: San Roke kalea, 4 • 31011 Iruña, Nafarroa  
Telefonoa: 848 42 41 60

## Fiskaltza

Helbidea: San Roke kalea, 4 • 31011 Iruña  
Telefonoa: 848 42 41 57

## Foruzaingoa

### Foruzaingoaren Laguntza Brigada

Helbidea: Fuente de la Teja kalea, z.g. 31006 Iruña  
Telefonoa: 848 42 64 03. Larrialdiak: 112  
Helbide elektronikoa: pfasistencial@navarra.es

### Altsasuko polizia etxea

Helbidea: Iruñeko etorbidea, 16 • 31800 Altsasu  
Telefonoa: 948 564 614  
Helbide elektronikoa: pfalsasua@navarra.es

### Elizondoko polizia etxea

Helbidea: Santiago etorbidea, 57 • 31700 Elizondo  
Telefonoa: 948 581 864.  
Helbide elektronikoa: pfelizondo@navarra.es

### Lizarrako polizia etxea

Helbidea: Gartzia Berrezarlea kalea, 4 • 31200 Lizarra  
Telefonoa: 948 555 576  
Helbide elektronikoa: pfestella@navarra.es

### Iruñeko polizia etxea

Helbidea: Gazteluko plaza, 2 • 31002 Iruña  
Telefonoa: 848 426 853  
Helbide elektronikoa: pfpamplona@navarra.es

### Zangozako polizia etxea

Helbidea: Aita Raimundo Lumbier etorbidea, 15 • 31400 Zangoza  
Telefonoa: 948 871 614  
Helbide elektronikoa: pfsanguesa@navarra.es

### Tafallako polizia etxea

Helbidea: Sansomain etorbidea, 2 • 31300 Tafalla  
Telefonoa: 948 704 265  
Helbide elektronikoa: pftafalla@navarra.es

### Tuterako polizia etxea

Helbidea: Tarazonako errepidea, 3. km-a • 31500 Tutera  
Telefonoa: 848 434 500  
Helbide elektronikoa: pftudela@navarra.es

## Polizia Nazionala

### **Nafarroako Poliziaren Buruzagitza Nagusiko Herritarren Parte-hartzerako ordezkaria**

Beloso kalea, 6 • 31006 Iruña  
Telefonoak: 948 299 526 eta 948 299 529

### **Polizia Nazionalaren Buruzagitza Nagusia**

Familien Arretarako Zerbitzua  
Helbidea: Chinchilla Jeneralaren kalea, 3 • 31002 Iruña  
Telefonoak: 948 299 779 eta 091 (24 ordu)

### **Polizia Nazionalaren Tuterako polizia etxea**

Polizia Judizialaren Tokiko Brigada  
Helbidea: Aita Lasa kalea, 7 • 31500 Tuter  
Telefonoa: 948 402 500

## Guardia Zibila

### **Guardia Zibila. Pertsonen kontrako delituen eta delitu telematikoen aurkako taldea** (Polizia Judizialaren

Unitate Organikoa - Pertsonen aurkako delituen arloa)  
Helbidea: Galizia etorbidea, 2 • 31003 Iruña  
Telefonoa: 948 296 850, 5262 luzapenarekin, eta 062 (24 ordu)

### **Guardia Zibila. PAE (Arreta Espezializatuko Gunea)** (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa - Iruñeko Polizia

Judizialaren Lurraldeko Taldea)  
Helbidea: Galizia etorbidea, 2 • 31003 Iruña  
Telefonoa: 948 296 850, 5205 luzapenarekin, eta 062 (24 ordu)

### **Guardia Zibila. PAE** (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa - Lizarrako Polizia Judizialaren Lurraldeko Taldea)

Helbidea: Merkatu Zaharra plaza, 21 • 31200 Lizarra  
Telefonoa: 948 554 454 eta 062 (24 ordu)

### **Guardia Zibila. PAE** (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa - Tafallako Polizia Judizialaren Lurraldeko Taldea)

Helbidea: Tuterako etorbidea, 52 • 31300 Tafalla  
Telefonoa: 948 700 089 eta 062 (24 ordu)

### **Guardia Zibila. PAE** (Polizia Judizialaren Unitate Organikoa - Tuterako Polizia Judizialaren Lurraldeko Taldea)

Helbidea: Aranaz y Vides kalea, 8 • 31500 Tuter  
Telefonoa: 948 820 073 eta 062 (24 ordu)

## Udaltzaingoak eta tokiko poliziak

Telefonoa: 092, 112 eta SOS NAFARROA 650 738 005 (azken honek **SMS formatuko mezuek igortzeko** aukera ematen du).

### **3. fasea: Ondorengo garapen jarduerak.**

Antzemandako egoeraren balorazioa egin ondoren (izaera, ezaugarriak, intentsitatea, larritasuna eta ondorioak) ondorioztatzen bada ez dela ziberjazarpen kasu bat, ikastetxeak zer jarduera behar diren aztertu eta ezarriko du; hauek izan daitezke, besteak beste: biktimizat jotako ikaslea babesteko erantzunak, antzemandako ekintza desegokiak zuzentzeko eta konpontzeko neurriak, familiei eta bizikidetzaren batzordeari egindako balorazioa jakinaraztea eta, bereziki, ikasleak sentibilizatzeko, informatzeko eta prestatzeko jarduerak didaktikoak egitea.

Ikastetxeko zuzendaritza taldeak egin, zuzendu eta bideratutako ikerketako jarduerak guztiak xeheki azalduko dira ikastetxeko ikuskariari eman behar zaion amaierako txostenean.

#### **Prestakuntza eta sentibilizazioko neurriak:**

Irakasle, ikasle eta/edo familiei zuzenduriko prestakuntza jarduerak egiteko aukera proposatzen da, gutxienez, jarraian labur adierazitako gaiak lantzeko:

- Intimitatea sarean
- Jazarpenaren eta ziberjazarpenaren arteko loturak
- Ziberjazarpena
- Ezagutzen duzu legea? Adingabeek sarea erabiltzerakoan dituzten eskubide eta erantzukizunak.
- Genero indarkeriako molde berriak, informaziorako eta komunikaziorako aplikazio teknologikoen bitartez.

Taula honetan azaltzen diren jarduerak behar bezala burutzeko, Bizikidetzarako Aholkularitzaren webgunean dauden material osagarriak begiratzea komeni da:

<http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/educacion-en-valores/asesoria-para-la-convivencia>

## 7. ERANSKINA

### IRAKASLEEKIN EGINDAKO ELKARRIZKETEN ERREGISTROA

#### BAIMEN BAT ESKATZEN DENERAKO

#### ZIBERJAZARPENERAKO EREDU OROKORRA

Ikaslearen sare sozialetan eta komunikazio tresnetan sartzeko baimenaren eredia

**BISITAREN EGUNA:**

**IRAKASLEAREN IZENA:**

**IRAKASGAIA/K:**

**IKASLEAREN IZENA:**

**IKASMAILA:**

---

---

---

---

---

**BISITARI(AR)EN IZENA**

---

---

---

**IKASLEAREKIN DU(T)EN AHAIDETASUNA:**

AITA

AMA

LEGEZKO TUTOREA

BESTE BAT

Beste bat bada, adierazi ahaidetasuna: \_\_\_\_\_

---

**BISITAREN ZERGATIA:**

Ikastetxeari ondoko gertakari hauek jakinarazi nahi dizkio:

.....(e)ko .....aren ....(e)an .....IKASLEAK

---

## ADOSTUTAKOA

\_\_\_\_\_ jaunak eta \_\_\_\_\_ andreak laguntza eskatu diote \_\_\_\_\_ ikastetxeari, honetarako: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_ jaunak esan du agian beharrezkoa izanen dela adingabeak sare sozialetan dituen profiletan sartzea. Sare sozialak zentzu zabalean ulertzen dira, adingabea informazio pertsonala kudeatuz sartzen den aplikazio edo programak haien barne hartuta.

Pribatutasunerako eta datuen babeserako araudia betez, \_\_\_\_\_ jaunak eta \_\_\_\_\_ andreak berariaz ematen diote baimena \_\_\_\_\_ (r)i sare sozialetako profiletan sartu dadin, gurasoekin lankidetzan adingabea behar bezala babesten lagun dezakeen informazioa eskuratzeko.

Sartzeko pasahitza behar den profiletarako, \_\_\_\_\_ jaunak dagozkion gakoak emanen ditu eta bere gain hartuko du horren ondoriozko erantzukizuna.

Ikastetxeko zuzendaritzak familiari jakinarazi dio Estatuko segurtasun indar eta kidegoen aurrean salaketa aurkezteko aukera dagoela eta, halaber, hezkuntzako agintari publiko diren heinean irakasleei dagozkien betebeharrak zein diren.

Irakaslearen sinadura,

Bisitari(ar)en sinadura,

## SEXTING KASUETARAKO EREDU BEREZIA

- **BISITAREN EGUNA:** \_\_\_\_\_
- **IRAKASLEAREN IZENA:** \_\_\_\_\_
- **IRAKASGAIA/K:** \_\_\_\_\_
- **IKASLEAREN IZENA:** \_\_\_\_\_
- **IKASMAILA:** \_\_\_\_\_

### **BISITARI(AR)EN IZENA**

---

---

---

### **IKASLEAREKIN DU(T)EN AHAIDETASUNA:**

- AITA
- AMA
- LEGEZKO TUTOREA
- BESTE BAT
- Beste bat bada, adierazi ahaidetasuna: \_\_\_\_\_

### **BISITAREN ZERGATIA:**

\_\_\_\_\_ jaunak ikastetxeari ondoko gertakari hauek jakinarazi nahi dizkio:

---

---

---

\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (e)an \_\_\_\_\_ ikasleak bere gorputzaren argazki eta bideoak igorri zizkiola \_\_\_\_\_ jaunari, mezularitza zerbitzu baten bidez (Whatsapp, Facebook, etab.).

Ikaslearen terminala aitarena edo amarena da, gurasoak kontratatu baitu telefono linea.

Ikasleak eta haren gurasoek jakin dutela \_\_\_\_\_ jaunak irudi eta bideo horiek mezularitza sistemen eta sare sozialen bitartez hedatu dituela, baina ez dakitela gaur arte benetan zenbat hedatu diren.

## ADOSTUTAKOA

\_\_\_\_\_ jaunak eta \_\_\_\_\_ andreak laguntza eskatu diote ikastetxeari, ikaslearen irudien kontrolgabeko hedapena eteteko.

\_\_\_\_\_ jaunak esan du agian beharrezkoa izanen dela adingabeak sare sozialetan dituen profiletan sartzea haur pornografiako kasu bat izan daitekeelako. Sare sozialak zentzu zabalean ulertzen dira, adingabea informazio pertsonala kudeatuz sartzen den aplikazio edo programak haien barne hartuta. Pribatutasunerako eta datuen babeserako araudia betez, \_\_\_\_\_ jaunak eta \_\_\_\_\_ andreak berariaz ematen diote baimena \_\_\_\_\_ (r)i sare sozialetako profiletan sartu dadin, gurasoekin lankidetzan adingabea behar bezala babesten lagun dezakeen informazioa eskuratzeko.

Sartzeko pasahitza behar den profiletarako, \_\_\_\_\_ jaunak dagozkion gakoak emanen ditu eta bere gain hartuko du horren ondoriozko erantzukizuna.

Ikastetxeko zuzendaritzak familiari jakinarazi dio Estatuko segurtasun indar eta kidegoen aurrean salaketa aurkezteko aukera dagoela eta, halaber, hezkuntzako agintari publiko diren heinean irakasleei dagozkien betebeharrak zein diren.

Irakaslearen sinadura,

Bisitari(ar)en sinadura,